



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 12a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Ebazpena, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak emana, jarraibide bat onesten duena Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruz (2. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-23/DLF-00001. 1/2023 Foru Lege-dekretua, apirilaren 24koa, Nafarroako Gobernuo zenbait departamenturi kreditu-gehigarria ematekoa. Batzorde Iraunkorrek baliozkotu du (17 or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ebazpena, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak emana, jarraibide bat onesten duena Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruz.

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren apirilaren 3ko 3/2023 Foru Dekretuak, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako dei egiten duenak, ezartzen du 2023ko maiatzaren 28an eginen direla Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak.

Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (HAOLO) lehen xedapen gehigarrian eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legean xedatutakoa betez, Nafarroako Kontuen Ganberari dagokio, bere fiskalizazio eginkizuna gauzatzean, iritzia ematea talde politikoek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen erregularitasunari buruz eta hauteskunde-araudia ez betetzeagatik jarduketak eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

Kontuen Ganberako lehendakariak 2022ko abenduaren 21ean emandako ebazpen baten bidez onetsi zen Kontuen Ganberaren 2023rako fiskalizazio programa, eta bertan honako hau gehitu zuen: "Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzeko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen erregularitasunaren fiskalizazioa".

Nafarroako Kontuen Ganberak komenigarritzat jo du jarraibide bat prestatzea, honako hauek zehazteko helburua duena: alde batetik, Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetarako buruzko fiskalizazioan jarraitu beharreko irizpide teknikoak; eta, beste aldetik, Kontuen Ganberari igorri beharreko kontabilitateko eta justifikazioko dokumentazioaren norainokoa eta baldintzak. Horrela, talde politikoek horiek ezagutuko dituzte, hauteskunde-araudian ezarritako betebeharrak errazago bete ditzaten.

Horrenbestez, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DU:

Lehena. Jarraibidea onestea Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruz; jarraian agertzen da.

Bigarrena. Jarraibide hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitara dadila agintzea, oroko jakin dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Probintziako Hauteskunde Batzordeari igortzea, bai eta hauteskundeen gaineko araudiaren arabera hauteskunde-kontabilitatea Nafarroako Kontuen Ganberan aurkeztu behar duten talde politiko guztiei ere.

Iruñean, 2023ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

Jarraibidea, Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruzkoa

1. Hauteskunde-kontabilitatea Nafarroako Kontuen Ganberan aurkeztu behar duten talde politikoak, eta legezko epeak.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 46. artikulurekin bat, honako hauek aurkeztu behar dute hauteskunde-kontabilitatea Nafarroako Kontuen Ganberan:

1. Lortutako hauteskunde-emaizten ondorioz, Foru Komunitatearen dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten alder-

di politikoak, federazioak, koalizioak eta hautesle-taldeak.

2. Aurreko antzeko hauteskunde-prozesu batean dirulaguntzak lortzearen ondorioz horien aurrerakina eskatu duten alderdi politikoak, federazioak, koalizioak eta hautesle-taldeak.

Alderdi politiko horiek beren hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu behar dute Kontuen Ganberan, bi hilabeteko epean, bozkatu eta biharamunetik aurrera. Hori dela eta, aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 29tik uztailearen 31ra artekoa izanen da.

2023ko irailaren 30a baino lehen, Kontuen Ganberak hauteskunde-kontabilitateen erregularitasunaren berri emanen die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari, eta, kontabilitateko irregulartasunak daudela edo hauteskundeetako diru-sarrera eta gastuetarako ezarritako mugak urratu direla antzematen badu, jaso beharreko dirulaguntza ukatzea edo murriztea proposatzen ahalko du, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 47. artikularekin bat etorritz.

2. Alderdi politikoek Kontuen Ganberan aurkeztea kontabilitatea eta frogagiriak.

Hauteskunderi lotutako kontabilitatea eta frogagiriak euskarri informatikoen bidez aurkeztuko dira, I. eta II. eranskinetan jasotako fitxategien izenei eta formatuei jarraikiz.

Kontabilitateko dokumentazioa eta jarraibide honetan ezarritako gainerako frogagiriak telematikoki tramitatuko dira. Kontuen Ganberak bidaltzeorri bat gaituko du horretarako, eta 2023ko maiatzaren 29an jakinaraziko zaizkie alderdi politikoei bertan sartzeko esteka eta baimenak, egun horretan hasten baita hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko epea.

Alderdi politikoetako hauteskunde-administratzaileek aurkeztuko dute dokumentazioa. Dokumentazio osoa igortzeko, beharrezkoa izanen da administratzailearen sinadura digitala.

Hauteskunde-kontabilitatea "xlsx" formatu elektronikoan igorri beharko da. Halaber, kasu bakoitzean zehazten den dokumentazioa "pdf" formatuko fitxategien bidez aurkeztuko da.

Kontuen Ganberak aurkeztu den informazioa egokia den ebaluatuko du, zehaztu ahal izateko justifikatutako gastu erregularretako zer zenbateko aplikatzen ahal zaien Parlamenturako hauteskunderi.

3. Kontuen Ganberan aurkeztu beharreko dokumentazioaren betekizunak.

3.1. Kontabilitateko dokumentazioa.

Nafarroako Parlamenturako hauteskunderak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 46. artikulua alderdi politikoak behar izan dituzten hauteskundeetako beren diru-sarrera eta gastuei buruzko hauteskunde-kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztera Kontuen Ganberan.

Kontabilitateko egoera-orriak "xlsx" formatuan igorriko dira, eta honako hauek jasoko dira horietan: egoera-balantzea, emaitza-kontua, liburu egunkaria, erregistratu diren eta kontuak multzokatu diren mugimenduen laburpena (liburu nagusia), eta kontabilitatea itxi aurreko baturen eta saldoen balantzea.

Halaber, alderdi politikoek diru-sarreraren eta gastuen laburpen-orria igorriko dute, kontzeptuak banakatuta.

Hautesleei hauteskundeetarako gutun-azalak eta boto-paperak zuzenean igortzeak eragindako hauteskunde-gastuak edo hauteskunde-propagandari eta -publizitateari lotutakoak gainerako hauteskunde-gastuetatik bereizi beharko dira, halako moduan non argi eta garbi identifikatuta egonen baitira mota horretako gastuei dagozkien partidak.

3.2. Diru-sarreraren frogagiriak.

HAOLOren 125.1 artikularekin bat, hauteskunde-gastuak ordaintzeko diren funts guztiak hauteskunde-kontuetan sartu behar dira, haien jatorria edozein dela ere.

Hauteskunde-kanpainari aplikatutako baliabide guztien jatorria frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta, gutxienez, honako hauek adierazi:

a) Ekarpen pribatuen identifikazio zerrenda, HAOLOren 126. artikuluan eskatutako baldintzak beteta (izena, helbidea eta NAN edo pasaporte zenbakia). Ekarpenak finantzaketa parte-hartzaileko mekanismoen (crowdfunding) bidez jasoz gero, HAOLOren artikulua horretan ekarpen pribatuetarako ezartzen dena aplikatuko zaie.

b) Alderdiaren diruzaintza arruntetik datozen funtsen jatorria frogatzen duen dokumentazioa. Horretarako, transferentzia-aginduak aurkeztu beharko dira, funtsen jatorrizko kontua eta horren titularrak adierazita.

c) Hauteskunde-kanpaina finantzatzeko erabili diren maileguen kreditu-eragiketei eta/edo kontratuei buruzko polizak; mailegu horiek finantza enti-

tateekin zein partikularrekin (mikrokredituak) formaliza daitezke. Azken kasu horretan, ekarpenegileen identifikazio osoa duen zerrenda aurkeztuko da.

d) Hauteskunde-dirulaguntzen inguruan jaso diren aurrerakinen ziurtagiriak.

3.3. Hauteskunde-gastu arrunten frogagiriak.

HAOLOren 130. artikuluekin bat, hauteskunde-gastutzat joko dira honako kontzeptu hauengatik 2023ko apirilaren 4tik hautetsiak aldarrikatzen diren egunera arte egiten direnak:

a) Hauteskundeetarako gutun-azalak eta boto-paperak prestatzea.

b) Zuzenean edo zeharka beren hautagai-zerrendetarako botoa sustatzeko helburua duen propaganda eta publizitatea, edozein modu eta baliabide erabiltzen direla ere.

c) Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak egiteko lokalen alokairua.

d) Hautagai-zerrenden zerbitzura lan egiten duten langile ez-finkoen ordainsariak edo haborakinak.

e) Hautagaien, alderdietako, elkarteetako, federazioetako edo koalizioetako buruzagien eta hautagai-zerrenden zerbitzuko langileen garraio-bideak eta joan-etorrietarako gastuak.

f) Posta eta frankeoa.

g) Hauteskunde-kanpainarako jasotzen diren kredituen interesak, dagokion dirulaguntza jasotzen den egunera arte sortzen direnak.

h) Hauteskundeetarako behar diren bulegoak eta zerbitzuak antolatzeke eta horiek funtzionatzeko behar diren guztiak.

Arau hori urratzeagatik, irregularizat joko dira alderdi politikoei lotutako edo haien mendeko fundazioek eta gainerako entitateek egindako gastuak, bai eta alderdien talde instituzionalek egindakoak ere.

Hauteskunde-gastu arruntak justifikatzeko, eskakizun hauek hartuko dira kontuan:

- Gastu guztien justifikazioa igorriko da fakturaren edo antzeko egiaztagiraren kopiaren eta ordainagiriaren bidez.

- Bidalitako justifikazio-faktura guztiek berariaz adierazi beharko dute zer hauteskunderi dagokion hauteskunde-gastua, zerbitzua noiz eman zen (eta, gainera, prentsan, irratan, sare sozialetan edo beste bitarteko digital batzuetan egindako publizitatearen kasuan, publizitatea noiz eman

edo argitaratu zen), eta zer gastu-kontzepturi dagokion, argi eta garbi identifikatu ahal izateko hauteskundeetakoak direla.

- Jatorrizko frogagiriak Kontuen Ganberaren eskura egonen dira, eta, horrek eskatuz gero, aurkeztu egin beharko dira.

- Hauteskunde-gastuak kuantifikatzeko, fakturen zenbatekoa hartuko da kontuan, zeharkako zergak barne.

- Baldin badaude hauteskunde-gastuak egin izana egiaztatzen duten dokumentuak, fakturatu-tako ondasunen edo zerbitzuen deskribapen orokorrak dituztenak, eta ondasun edo zerbitzu horien banakako balioa 50.000 eurotik gorakoa bada, aurrekontua edo antzeko deskripzio agiria erantsi beharko da, fakturatu-tako kontzeptuen izaera eta zenbatekoa frogatzea ahalbidetzen duena.

- d) atalean aipatzen diren langile ez-iraunkorren gastuen justifikazioan, nominez gain, hauteskunde-kanpainarako langileekin sinatutako lan kontratuak ere erantsiko dira.

- Hauteskunde-ekitaldietarako kontratatutako aseguru-gastuen justifikazioan, aseguru-entitatearekin sinatutako poliza erantsi beharko da.

Hauteskunde-gastuei dagokienez, Kontuen Ganberaren fiskalizazio irizpideen arabera, ez dira sartzen HAOLOren 130. artikuluan zerrendatutako kontzeptuen artean honakoak:

a) Jatetxe-gastuak, hauteskunde-mahaiak hornitzeko egiten direnak izan ezik.

b) Inkestak, aholkularitza, aholkularitza estrategikoa edo sare sozialen jarraipena egitearen ondoriozko gastuak, eta bideratzen direnak biztanleriaren boto-asmoa edo ezaugarriak aztertzerako horri buruzko datuen analisiaren eta/edo azterlan soziologikoen, demografikoen eta abarren bitartez.

c) Kanpaina-ekitaldietan afiliatuak eta/edo jarraitzaileak lekualdatzeko autobusak edo beste-lako garraio-bideak kontratatzearekin lotutako gastuak. Hauteskunde-gastutzat hartzen dira, ordea, e) letrak xedatzen duen bezala, kontratazio hori hautagaiak, alderdietako buruak eta hautagaitzaren zerbitzura dauden langileak lekualdatzeko denean.

d) Hautagaien prestakuntza gastuak, edo arte-karien edo hauteskunde-mahaietako ahaldunak, baita estilismo-gastuak ere.

e) Horniduren gastuak, hala nola elektrizitatea, telefonoa eta abar, non eta ez den modu sinesgarrian egiaztatzen hauteskundeetakoak direla eta,

ondorioz, hauteskunde-prozesua dela-eta kontratatu direla.

f) Hauteskunde-lanerako berariaz eskuratu ez den bulegoko materiala; bestela, ohiko funtzionamendu-gastuak izanen dira.

g) Alderdi politikoa eratzeko notario-gastuak edo hautagaitzak aurkezteko behar diren sinadurak legitimatzeko gastuak.

h) Hauteskunde-gauean aretoak edo espazioak alokatzea, edo ostatu-gastuak hauteskunde-kanpaina amaitu ondoren.

i) Musika- edo entretenimendu-emanaldien eta haurrentzako atrakzioen gastuak, ez baitira botoa sustatzeko propaganda edo publizitatea, eta ez baitira beharrezko gastuak hauteskunde-ekitaldiak egiteko.

j) Debekatutzat joko dira kanpoko publizitatearen gastuak eta prentsa eta irratiko publizitatearenak, egiten baldin badira hauteskundeak deitu ondoren eta hauteskunde-kanpaina hasi aurretik, HAOLO legearen 53. artikuluari jarraituz, baina gastu horiek kontuan hartuko dira gastuen mugak kalkulatzeko orduan. Ezin izanen da horrelako gasturik sortu hauteskunde-kanpaina amaitu ondoren, publizitate-elementuak desmuntatu edo kentzeko izan ezik.

Honako hauek, aldiz, bai sartzen dira HAOLoren 130. artikuluan zerrendatutako kontzeptuen artean:

a) Hauteskunde-prozesuarekin lotutako kontabilitate- eta administrazio-dokumentazioa prestatzearen ondoriozkoak, baldin eta zerbitzuak berariaz kontratatu badira prozesua dela-eta.

b) Publizitate-elementu inbentariagarrietan egindakoak, kontuan hartu gabe elementu horiek hauteskunde-garaian edo beste hauteskunde-prozesu batzuetan berrerabilgarriak diren.

c) Oro har, ulertzen da h) atalean aipatzen diren beharrezko gastuek biltzen dituztela hauteskunde-prozesuan eskatzen diren bulego eta zerbitzuen funtzionamendu normalari eragin diezaioketen gastuen kontzeptuak; bereziki, hauteskunde-xedeekin irekitako administrazio-bulegoen gastuak.

d) Hauteskunde-kanpainak finantzatzeko ituzten diren kreditu-eragiketen interesei dagokienez, honako irizpide honi heltzen zaio, aurreko fiskalizazioetan jada erabili dena: kontuan hartuko dira kreditua formalizatzen denetik hauteskundeak egin eta urtebetera arte sortzen diren interesak, dirulaguntzak jasotzeko aurreikusten den batezbesteko aldian sortutakoak edo, hala bada, kredi-

tua amortizatzen den egunera arte sortutakoak (kreditu hori lehenago amortizatuz gero).

Balioespen hori zorraren printzipalaren zenbateko hauen eta aldi hauen gainean kalkulatzeko da:

- Kontuen Ganberan hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren aurrerakina jasotzeko eskubidea sortzen den egunera arte amortizatze dagoen kapitalaren gainean. Sortzapen-aldia homogeneizatzeko asmoz, hauteskundeetarako deialdia egiten den egunetik horiek egin eta bost hilabete igaro artekoa izanen da.

- Dirulaguntzen aurrerakinekin ordaintzen ez diren saldoen gainean, hauteskundeak egiten direnetik urtebete pasatu arte edo, hala bada, kreditua amortizatzen den egunera arte (kreditu hori lehenago amortizatuz gero).

Interesak zenbatu badira hauteskunde-gastu arrunt gisa eta hauteskunde-propaganda eta -publizitatea igortzeagatiko gastu gisa, azken kontzeptu horri egotzitako proportzioa hau adinakoa izanen da, gehienez: hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuek hauteskunde-gastu guztien gainean egiten dutena.

Aurkeztutako kontabilitatea aztertzean ikusten bada alderdi politiko batek ez dituela aurreko irizpideak aplikatu interesak kalkulatzeko eta banatzean, behar bezalako justifikaziorik izan gabe, Kontuen Ganberak aitortzen diren zenbatekoak doituko ditu, bakar-bakarrik egiaztatze aldera gastu-mugak betetzen direla eta hauteskunde-propaganda eta -publizitatea zuzenean eta modu pertsonalizatuan igortzeagatiko gastuak erabat egotzen direla.

3.4. Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuen eta zuzenean eta modu pertsonalizatuan egindako igorpen kopuruaren frogagiriak.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 44. artikulua ezartzen duenez, diruz lagungarria da hautesleei propaganda, gutun-azalak, boto-paperak edo hauteskunde-publizitatearen beste elementu batzuk zuzenean eta modu pertsonalizatuan igortzearen kostua, gutxienez jarleku bat lortu duten hautagai-zerrendentzat.

HAOLOren 59. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, zeinak ezartzen baitu hauteskunde-deialdi bakoitzean hautesle bakoitzeko gehienez igorpen bat egin daitekeela, "mailing" delakoaren dirulaguntza espezifikoaren kontura, hautesle bakoitzeko hauteskunde-propagandaren igorpen bakarra finantza daiteke.

Igorpenak behar bezala justifikatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Alderdi politikoak mota horretako gastuak ordaintzeko dirulaguntza jasotzeko eskubidea baldin badu, mota horretako gastu guztien frogagiriak aurkeztu beharko dira, haien zenbatekoa kontuan hartu gabe. Bertan, fakturatutako unitateei buruzko informazio zehatza agertuko da. Era berean, justifikatzeko igorritako faktura guztiek berariaz adierazi beharko dute zer hauteskunderi dagokien hauteskunde-gastua.

- Igorpenak nahitaez helbidera eginen dira, hartzailea zehaztuta; beraz, postontzietan banatzeko gastuak ezin dira jo hauteskunde-propaganda zuzenean eta modu pertsonalean bidaltzek eragindako gastutzat.

- Alderdi politikoek berariaz adierazi beharko dute, aparteko agiri batean, zenbat hautesleri igorri dizkieten zuzenean eta modu pertsonalean hauteskundeetarako gutun-azalak eta boto-pape-rak edo hauteskunde-propaganda.

- Igorpen horien justifikazioari dagokionez, horiek egin direla modu fede-emailean frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- Horrela, igorpenak Correos bidez edo banaketa-enpresa pribatu baten bidez egin badira, dena delako entitateak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zuzenean eta modu pertsonalean egin diren igorpenen kopurua adierazten duena, salbu eta igorpenak egin dituen enpresaren fakturan berariaz adierazita badago jarduera egin dela eta igorpenak eskatzen diren mailan egin direla.

Banaketa baliabide propioen bidez egin bada zuzenean, alderdi politiko bakoitzeko arduradunak zuzenean eta modu pertsonalizatuan egindako igorpenen kopurua ziurtatuko du. Alderdi politikoak banaketa horretan parte hartu duten pertsonen zerrenda gorde beharko du, Kontuen Ganberak egokitzat jo baitezake jarduera benetan egin dela behar bezala frogatzeko egiaztapenak egitea.

- Atzerrian bizi diren hautesleei egindako igorpenei dagokionez, egindako igorpenen kopuru osoaren berri eman beharko da berariaz, eta mota horretako igorpenak egin direla berariaz frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu.

- Alderdi politikoek hauteskunde-igorpenen azalpen-memoria bat aurkeztuko dute, V. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Memoria horretan, honako hauek jasoko dira: gutun-azaletan sartutako elementuak, gutun-azalak egin eta banatzeaz arduratzen diren enpresak, gastu horiek justifikatzen dituzten fakturen zenbakiak,

eta igorpenei lotutako gastuak (hauteskunde-errol-daren tratamendua, administrazio-kudeaketa, garraioa, enbalajea, etab.).

Hauteskunde-araudiarekin bat, hauteskunde-igorpenengatiko gastuen zenbatekoaren zati bat ez bada ordaintzen justifikatutako igorpenen kopuruagatik jaso beharreko dirulaguntzarekin, zenbateko horrek hauteskunde-jarduera arruntagatik aitortutako gastuak gehituko ditu, ondorio guztietarako.

3.5. Beste agiri batzuk.

Ezertan eragotzi gabe fiskalizazioa egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa, edozein unetan eskatzen ahalko dena, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Probintziako Hauteskunde Batzordeari honako alderdi hauen inguruan egindako komunikazioen kopia izatea:

1. Hauteskunde-kontabilitateaz arduratzen den administratzailearen izendapena.

2. Hauteskundeetarako irekitako banku-kontuen identifikazioa.

3. Hala bada, hauteskundeetarako dirulagun-tzek eman diren kredituekin duten lotura.

4. Koalizioan aurkeztuz gero, Nafarroako Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinarazitako koalizio-itunaren kopia eta hauteskunde-kontabilitateak bateratzeko itunaren kopia.

Gainera, hauteskundeetako banku-kontuen laburpenen kopia osoa bidali beharko da, kredituentitateetan ireki zirenetik, baita kredituei lotutako kontuena ere. Hauteskundeetako banku-kontuak hautagaitza aurkezten duen alderdi politikoaren titulartasunarekin eta IFZrekin ireki beharko dira, eta horietan hauteskunde-administratzaileak esku hartuko du. Banku-kontu horiek, nahitaez, desberdinak izan behar dute hauteskunde-prozesu zehatz bakoitzean, eta alderdi politikoaren ohiko funtzionamenduan dihardutenetatik desberdinak.

3.6. Igorri beharreko dokumentazioa aurkeztu eta gordetzea.

Lehen aipatutako kontabilitate- eta justifikazio-agiriak aurkezteko, hauteskunde-administratzaileak igorpen-idazkia sinatu beharko du, III. eranskinean jasotako edukiarekin, bidalitako kontabilitate- eta justifikazio-dokumentazioaren egiaztotasuna ziurtatzeko.

Era berean, adierazpen bat aurkeztuko da, aurkeztutako dokumentazioak hauteskundeetako diru-sarrera eta gastu guztiak jasotzen dituela dioena.

Alderdi politiko bakoitzaren ardua izanen da originalak zaintzea, bai kontabilitateko egoera-orrienak bai egiaztagiri guztienak, eta Kontuen Ganberaren esku utziko ditu, eta hark eskatuz gero, aurkeztu egingen ditu.

4. Finantza entitateei eta hornitzaileei buruzko informazioa.

HAOLOren 133. artikulua 3. eta 5. apartuetan xedatutakoarekin bat, alderdi politikoekin eragiketak itundu dituzten finantza entitateek eta 10.000 eurotik gorako hauteskunde-gastuen fakturak igorri dizkieten enpresek beren eragiketen berri eman beharko diote Kontuen Ganberari.

Finantza-entitateek eta hornitzaileek "xlsx" eta "pdf" formatuetan eman beharko diote informazioa Kontuen Ganberari, jarraibide honen VI. eta VII. eranskinetako ereduak jarraituz. Horretarako, Kontuen Ganberaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingen dute entrega.

Alderdi politikoek aitortzen dituzten gastuak egiaztatu ahal izateko, horien laguntza eskatzen da, zerbitzua kontratatzen den unean edo egokitzat jotzen dutenean, finantza entitate eta hornitzaile horiei gogoraz diezaieten betebeharrak hori bete behar dutela.

5. Legezko gastu-mugen kuantifikazioa eta egiaztatpena.

5.1. Gehieneko gastu-mugak.

Ezein alderdi politikok ezin du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legean ezarritako mugak gainditzen dituen hauteskunde-gasturik egin. Izan ere, foru Lege horren 43. eta 44. artikuluek hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoen hauteskunde-gastuen mugak eta hauteskunde-jarduerengatik dirulaguntzak arautzen dituzte.

Foru lege horren 43. artikulua bigarren apartatuan jasotako agindua betetzeko, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 4ko 24/2023 Foru Aginduak Nafarroako Parlamenturako 2023ko hauteskundeetarako hauteskunde-gastuen muga hau ezartzen du: 490.638 euro hauteskunde-gastuetarako alderdi politiko bakoitzeko, kanpo daudela propaganda, gutun-azalak, boto-paperak edo hauteskunde-publizitateko beste elementu batzuk hautesleei zuzenean bidaltzeko gastuak.

Muga hori ezartzen da ezertan galarazi gabe bi hauteskunde-prozesuetan (tokikoa eta autonomikoa) aurkezten diren alderdi politikoei dagokien muga izanen dela, HAOLOren 131.2 artikuluan

ezarritakoarekin bat, Hauteskunde Batzorde Zentralaren ustez, honako eragiketa honen ondorioz sortzen den kopuru handiena: legez ezarritako gastu-muga tokiko hauteskunderi edo Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi aplikatzea, eta kopuru horri Gorte Nagusietarako hauteskunderi-tako legezko gastu-mugaren ehuneko 25 gehitzea.

Gastu-muga egiaztatzeko ondorioetarako, kontuan hartuko dira alderdi politikoak aitortzen dituen gastuak, HAOLOren 130. artikuluan aipatzen diren kontzeptuetan sartzen direnak, alde batera utzita Kontuen Ganberak behar bezala justifikatuz aitortzen dituen ala ez.

Alderdi politikoak aurkeztutako kontabilitatean aipatu ez badira ere, Kontuen Ganberak antzeman dituen eta ustez hauteskunde-gastuei dagozkien gastuei dagokienez, horiek kontuan hartuko dira gastu-mugaren ondorioetarako, baina ez dira diruz lagungarriak izanen. Nolanahi ere, aitortu gabeko gastuak ez dira sartuko hauteskunde-gastu diruz lagungarrien artean, nahiz eta horiek kontuan har daitezkeen gastu-muga betetzeko ondorioetarako.

Era berean, egiaztatuko da alderdi politikoek zuzenean eta modu pertsonalean bidalitako hauteskundeetarako gutun-azalak eta boto-paperak edo egindako hauteskunde-propagandak eta -publizitateak ez dutela hautesleen gehieneko kopurua gainditzen, behin Estatistikako Institutu Nazionalak alderdi politikoei ematen dizkien hautesle-eroldaren kopietatik kentzea eskatu duten hautesleak kenduta. Gehiago badira, soberakin horren ondoriozko gastuak ez dira diruz lagungarriak izanen kontzeptu horrengatik.

Hauteskunde-propaganda zuzenean eta modu pertsonalizatuan igortzearen ondoriozko gastuak diruz lagungarriak ez badira, horien zenbatekoa hauteskunde-jarduera arruntagatik aitortutako gastuei erantsiko zaie, eta, horren ondorioz, gastu-muga betetzeko ondorioetarako zenbatuko da.

5.2. Prentsako eta irratiko publizitateko gastu-muga.

HAOLOren 58. artikulua beste gastu-muga bat ezartzen du egunkari eta irratietan pribatueta-ko publizitate gastuetarako; gastu horiek ezin izanen dira izan hauteskunde-gastuen gehieneko mugaren % 20 baino handiagoak.

Muga hori egiaztatzen laguntzeko, alderdi politikoak gainerako gastuetatik bereizita aurkeztu beharko ditu mota horretako gastuak, igorritako kontabilitatean.

Aldizkako prentsako publizitate gastuen artean, horien barnean egonen dira alderdi politikoak prentsa digitalean hauteskunde-kanpainarako egiten dituenak. Sare sozialetako hauteskunde-publizitatea ezin zaio egotzi prentsako eta irratiko publizitateko gastu-mugari, baldin eta komunikabide horiei dagozkien orriak edo profilak ez badira, hori guztia galarazi gabe Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako ezarritako hauteskunde-gastuen legezko gehieneko muga bete behar duten.

6. Alderdi politikoek jaso beharreko dirulaguntzari buruz Kontuen Ganberak egiten dituen proposamenak.

Nafarroako Foru Komunitateak hauteskunde-gastuak lagunduko ditu diruz, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legean eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 4ko 24/2023 Foru Aginduan ezarritako arauen arabera. Azken foru agindu horren bidez, hauteskunde-jarduerengatiko dirulaguntzen honako zenbateko hauek finkatu dira:

- a) 14.206 euro lortutako jarleku bakoitzeko.
- b) 1,13 euro boto bakoitzagatik, gutxienez jarleku bat lortzen duten hautagai-zerrendentzat.
- c) 0,29 euro hautesle bakoitzagatik, gutxienez jarleku bat lortzen duten hautagai-zerrendentzat, hautesleei propaganda, gutun-azalak, boto-papearak edo hauteskunde publizitateko beste elementu batzuk zuzenean igortzean benetan egindako gastuengatik.

Talde politiko bakoitzari dagokion dirulaguntza ezin izanen da inola ere izan aitortutako hauteskunde-gastuen zenbatekoa baino handiagoa, Kontuen Ganberari justifikatu zaiona bere fiskalizazio eginkizuna gauzatzeko, kontuan hartu gabe arau horiek aplikatuz datarren zenbatekoa.

Horrez gain, foru lege horren 47.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, talde politikoek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateetan irregulartasunak daudela edo hauteskundeetako diru-sarrera eta gastuetarako ezarritako mugak urratu direla antzematen bada, Kontuen Ganberak proposatzen ahalko du talde politikoak jaso beharreko dirulaguntza publikoa ukatzea edo murriztea. Gainera, delitua izan daitezkeen jokabideen zantzuak antzematen baditu, Fiskaltzari jakinaraziko dio.

Dirulaguntza ukatzeko edo murrizteko proposamenik egiten ez denean, egoera hori espresuki jasoko da fiskalizazio-emaitzetan.

Hauteskunde-dirulaguntza ukatzeko proposamena eginen da Kontuen Ganberan hauteskunde-etako beren diru-sarrera eta gastuei buruzko kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkezteko legezko betebeharra betetzen ez duten talde politikoentzat.

Talde politiko bakoitzari dagokion hauteskunde-dirulaguntza murrizteko proposamenaren zenbatekoa kuantifikatzeko, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- 10.000 euroko legezko muga gainditzen duten ekarpen pribatuen kasuan, gehiegizko zenbatekoa halako bi murriztea proposatuko da.
- Talde politikoak hauteskunde-kanpainan erabilitako baliabideen jatorria behar bezala egiaztatzen ez bada edo HAOLoren 128. artikulua betetzen ez badute, irregulartzat jotako baliabideak halako bi murriztea proposatuko da.
- Hauteskundeen gaineko araudiak baimendu gabeko gasturen bat egiten bada telebista pribatuetan (HAOLoren 60. artikulua), udal titulartasuneko soinu-zuko irrati-hedapenerako irrati-tan (10/1991 Lege Organikoa) eta lur-reko uhinen bidezko tokiko telebistetan (14/1995 Lege Organikoa) hauteskunde-etako publizitate-saioak kontratatuzeko, dirulaguntza irregulartzat jotako gastuak halako bi murriztea proposatuko da.
- HAOLoren 125.1 artikuluan adierazitakoa urratuz eskudirutan edo hauteskunde-etakoak ez diren banku-kontuetatik ordaintzen diren hauteskunde-gastuen kasuan, dirulaguntza gastu horien zenbatekoaren %10 murriztea proposatuko da.
- Atzemandako akatsak funtsean alderdi formalekoak baldin badira, justifikazioan duten eragina baloratuko da, eta Kontuen Ganberak, ondorioz, proposatuko du jaso beharreko dirulaguntza murriztea.
- Proposatutako murrizketen zenbatekoa edozein dela ere, murrizketa horien muga talde politikoek lortutako emaitzengatik dagozkien dirulaguntzen zenbatekoa izanen da. Dirulaguntza horiek ezin izanen dute inola ere gainditu Kontuen Ganberak bere ikuskapen-funtzioan justifikatuz joko gastuen zenbatekoa.

I. ERANSKINA**BIDALI BEHARREKO KONTABILITATEKO DOKUMENTAZIOAREN FITXATEGIAK****Kontabilitateko egoera-orriak.**

Talde politikoek hauteskunde-kontabilitateari buruzko beren kontabilitateko egoera-orriak igorriko dituzte honako fitxategi hauen bidez:

- Siglak_28M23_BALANTZEA.xlsx
- Siglak_28M23_EMAITZAK.xlsx
- Siglak_28M23_BATURA-SALDOAK.xlsx
- Siglak_28M23_NAGUSIAK.xlsx
- Siglak_28M23_EGUNERO.xlsx

Era berean, diru-sarreraren eta gastuen laburpen-orria bidaliko dute, HAOLoren 130. artikuluan zerrendatutako kontzeptuen arabera multzokatuta, honako fitxategi hau beteta:

- SiglaK_28M23_DIRUSARRERAK-GASTUAK.xlsx

1. oharra: Fitxategien izendapenean, "Siglak" eremuan, talde politikoaren siglak jasoko dira.

2. oharra: Eranskin honetan eskatzen diren "xlsx" fitxategiak Kontuen Ganberaren webgunean argitaratutako txantiloietara egokituko dira.

II. ERANSKINA.

BIDALI BEHARREKO JUSTIFIKAZIO-DOKUMENTAZIOAREN FITXATEGIAK

Diru-sarrerei buruzko informazioa.

Huteskunde-kanpainari aplikatutako baliabideetarako:

- Siglak_28M23_BALIABIDEAK.xlsx

Ekarpen pribatuetarako eta horien justifikaziorako:

- Siglak_28M23_EKARPEN-PRIBATUAK.xlsx
- Siglak_28M23_EKARPEN-PRIBATUAK.pdf

Alderditik datozen funtsen ekarpenetarako eta horien justifikaziorako:

- Siglak_28M23_EKARPENAK-ALDERDIA.xlsx
- Siglak_28M23_EKARPENAK-ALDERDIA.pdf

Huteskunde-kanpaina finantzatzeko sinatutako kreditu polizarako/polizetarako:

- Siglak_28M23_POLIZA.pdf

Poliza bat baino gehiago sinatu bada, zenbakitze bat ezarriko da, adibidez, «1. POLIZA», «2. POLIZA»....

Mikrokreditu-kontratuen bidez jasotako ekarpenetarako eta haien justifikaziorako:

- Siglak_28M23_MIKROKREDITUAK.xlsx
- Siglak_28M23_KONTRATUAK.pdf

Huteskunde-dirulaguntzen aurrerakinak frogatzeko:

- Siglak_28M23_AURRERAKINAK.pdf

Huteskunde-gastu arruntei buruzko informazioa.

Huteskunde-gastu arrunt guztiak zerrendatzeko:

- Siglak_28M23_GASTU-ARRUNTAK .xlsx

Kontabilitateko idatzohar guztiak justifikatzeko:

- Siglak_28M23_GASTU-ARRUNTAK.pdf

Fitxategi hori bai banan-banan –frogagiri bakoitzeko–, bai hainbat frogagiri multzokatuta, zatika daiteke, egokientzat jotzen denaren arabera; hala ere, fitxategiak zenbaki-segida batean emanen dira.

50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten aurrekontuetarako edo antzeko deskripzio agirietarako:

- Siglak_28M23_AURREKONTUAK.pdf

Fitxategi hori bai banan-banan, bai hainbat aurrekontu multzokatuta, zatika daiteke, egokientzat jotzen denaren arabera; hala ere, fitxategiak zenbaki-segida batean emanen dira.

Huteskundeetarako gutun-azalak eta boto-paperak eta huteskunde-propaganda eta -publizitatea zuzenean igortzeak eragindako gastuei eta zuzenean eta modu pertsonalizatuan egindako igorpenen kopuruari buruzko informazioa.

Huteskunde-propaganda igortzeagatik huteskunde-gastuak zerrendatzeko:

- Siglak_28M23_GASTUAK-IGORPENAK.xlsx

Kontabilitateko idatzoharrak justifikatzeko:

- Siglak_28M23_GASTUAK-IGORPENAK.pdf

Igorpenen kopurua aitortzeko:

- Siglak_28M23_IGORPEN-KOPURUA.xlsx

Igorpenen kopurua justifikatzeko:

- Siglak_28M23_IGORPEN-KOPURUA.pdf

Atzerrira egindako igorpenen kopurua frogatzeko:

- Siglak_28M23_ATZERRIRA-KOP.pdf

Hauteskunde-igorpenen gastuen memoriarako:

- Siglak_28M23_MEMO-IGORPENAK.xlsx
- Siglak_28M23_MEMO-IGORPENAK.pdf

Bestelako informazioa.

Nafarroako Probintziako Hauteskunde Batzordeari hauteskunde-administratzailearen izendapenaren berri emateko:

- Siglak_28M23_ADMINISTRATZAILEA.pdf

Nafarroako Probintziako Hauteskunde Batzordeari hauteskundeetarako irekitako kontuaren berri emateko:

- Siglak_28M23_KONTUAK.pdf

Hauteskunde Batzorde eskudunari jakinarazteko nola eragin dieten hauteskundeetako dirulaguntzek emandako kredituei:

- Siglak_28M23_ERAGINA-DIRUL.pdf

Hauteskunde Batzorde eskudunari koalizio-itunaren kopia, hala badagokio, eta kontabilitateak bateratzeko ituna jakinarazteko:

- Siglak_28M23_KOALIZIO-ITUNA.pdf
- SiglaK_28M23_BATERATZE-ITUNA.pdf

Hauteskundeetarako kontuaren banku-laburpenak eta, hala badagokio, eman diren kredituei lotutako kontuarenak/kontuenak igortzeko, xlsx fitxategi bat eta pdf fitxategi bat:

- Siglak_28M23_LABURPENA_XLSX
- Siglak_28M23_LABURPENA.pdf

Laburpen bat baino gehiago badago, zenbakitze bat ezarriko da, adibidez, «1. LABURPENA», «2. LABURPENA»....

1. oharra: "Siglak" eremuan, talde politikoaren siglak adieraziko dira.

2. oharra: Eranskin honetan eskatzen diren "xlsx" fitxategiak Kontuen Ganberaren webgunean argitaratutako txantiloietara egokituko dira.

III. ERANSKINA.**TALDE POLITIKOEN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEKO DOKUMENTUA**

Kontabilitateko egoera-orriekin eta gainerako frogagiriekin batera, eduki hau duen igorpen-agiri bat aurkeztuko da, sinadura digitalak babestua egonen dena:

..... jaun-
andreak, (kontu-emailearen izen-abizenak), Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetarako talde politikoko hauteskunde-administratzailea denak, (Kontuen Ganberari igortzen diot hauteskunde horietako hauteskunde-kontabilitatea, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2023ko apirilaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez onetsitako Kontuen Ganberaren jarraibideak aipatzen duen moduan eta dokumentazio osagarria aurkeztuta; ebazpen hori Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruzkoa da.

Aitortzen dut hauteskunde-kontabilitate horri buruzko informazioa Nafarroako Kontuen Ganberak gaitutako igorpen-orriaren bidez aurkeztutako fitxategietan jasotzen dela.

Ziurtatzen dut benetakoak direla igorritako datuak eta aurkeztutako frogagiriaren kopia; talde politiko honek frogagiri horien jatorrizko agiriak ditu Kontuen Ganberaren eskura.

Halaber, adierazten dut aurkeztutako dokumentazioak hauteskundeetako diru-sarrera eta gastu guztiak jasotzen dituela.

.....(e)n, 2023koaren(e)(a)n.

Huteskunde-administratzailea

Oharra: Testu hori ez da dokumentu independente gisa aurkeztuko, baizik eta igorpen-inprimakian integratuta.

IV. ERANSKINA.**HAUTESKUNDE KOALIZIOAREN KONTABILITATEA BATERATZEKO ITUNAREN EREDUA**

.....(e)n, 2023koaren(e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, jauna/andrea,
.....(r)en (*talde politikoaren izena*) izenean eta hura ordezkatzuz;

Bestetik, jauna/andrea,
.....(r)en (*talde politikoaren izena*) izenean eta hura ordezkatzuz;

(*Ordezkar bat gehituko da hauteskunde koalizioa osatzen duen talde politiko bakoitzeko*).

Guztiak elkarri aitortzen diote behar adinako gaitasuna jarduteko eta dokumentu hau ezartzeko, bai eta, Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetan parte hartu zuen hauteskunde koalizioari dagokionez (*koalizioaren izena eta siglak*), koalizioko talde politikoen urteko kontuetan hauteskunde-kontabilitatea bateratzeari buruzko ituna finkatzeko ere.

ITUNA

Kontu Auzitegiak 2018ko abenduaren 20an onetsitako Talde Politikoei Egokitutako Kontabilitate Planaren 15. erregistro eta balorazio arauan (Baterako hauteskunde-jarduerak) adierazitakoa aplikatuz, erabaki da talde politiko bakoitzak bere urteko kontuetan erregistratuko duela 2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundearen kontabilitatea, epigrafe espezifikoen sailkatuta haien hauteskunde-izaeraren arabera, kasuan kasuko zati proportzionalean bateratze itun honetan ezarritako portzentaje hauei jarraituz:

	Portzentajea
(1. talde politikoa)	
(2. talde politikoa)	
(...)	

Eta horrela jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dute.

(*Sinadura-aurrekoak, sinadurak eta zigiluak*)

V. ERANSKINA**GUTUN-AZALAK, BOTO-PAPERAK, PROPAGANDA ETA HAUTESKUNDE-PUBLIZITATEA
BIDALTZEAREN GASTUEN MEMORIA****Talde politikoa: (Talde politikoaren izena)**

Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetarako hauteskunde-kanpainari dagokionez, jarraian zehazten dira gutun-azalak ("mailing") osatzen dituzten elementuei lotutako gastuak eta igorpenei lotutako gainerako gastuak.

1. "Mailing" delakoa osatzen duten elementu guztiei lotutako gastuak: boto-paperak, bozkatzeko gutun-azalak, hauteskunde-publizitatea eta -propaganda, biltzeko gutun-azalak, etab.

Deskribapena	Hornitzailea	Kontabilitate-kontua	Faktura zk.	Fakturaren zenbatekoa	Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei egotzitako zenbatekoa (*)

(*) Bete behar da baldin eta fakturako gastuak badagozkie 2023ko maiatzaren 28an egindako hauteskunde-prozesu bati baino gehiagori.

2. "Mailing" delakoaren igorpenei lotutako beste gastu batzuk: garraioa, hautesle-eroldaren tratamenduak, administrazio-kudeaketa, posta-frankeoa, etab.

Deskribapena	Hornitzailea	Kontabilitate-kontua	Faktura zk.	Fakturaren zenbatekoa	Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei egotzitako zenbatekoa (*)

(*) Bete behar da baldin eta fakturako gastuak badagozkie 2023ko maiatzaren 28an egindako hauteskunde-prozesu bati baino gehiagori.

**VI. ERANSKINA
FINANTZA ENTITATEEK AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO EREDUA**

VI. ERANSKINA - FINANTZA ENTITATEEK AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO EREDUA					
Finantza entitatea					
Harremanetarako telefona					
Harremanetarako pertsona					
Hauteskondeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Kontuen Ganberari honako informazio hau igortzen zaio 2023ko maiatzaren 28an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartu duten talde politikoei emandako kredituei buruz:					
Talde politikoa	Eragiketa mota	Eragiketaren zk.	Emandako zenbatekoa	Mugaeguna	Interes-tasa (%)

Oharra: eredia eskura dago Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian.

VII. ERANSKINA
TALDE POLITIKOEN HORNITZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO EREDUA

VII. ERANSKINA - TALDE POLITIKOEN HORNITZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO EREDUA			
Enpresaren izen soziala			
Helbidea			
Identifikazio fiskaleko zenbakia			
Harremanetarako telefonoa			
Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 133.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Kontuen Ganberari honako informazio hau igortzen zaio enpresa honek 2023ko maiatzaren 28an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartu duten talde politikoei fakturatutako zenbatekoei buruz:			
Talde politikoa	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa (BEZa barne)

Oharra: eredia eskura dago Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-23/DLF-00001. 1/2023 Foru Lege-dekretua, apirilaren 24koa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi kreditu-gehigarria ematekoa.

BATZORDE IRAUNKORRAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2023ko maiatzaren 9an Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek onetsi zuen baliozkotzea 1/2023 Foru Lege-dekretua, apirilaren 24koa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi kreditu-gehigarria ematekoa. Foru Lege-dekretu hori 2023ko apirilaren 25eko 85. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**1/2023 Foru Lege-dekretua,
apirilaren 24koa, Nafarroako
Gobernuko zenbait departamenturi
kreditu-gehigarria ematekoa**

ATARIKOA

Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetak Departamentuak txostenak igorri dituzte 2023an gastu batzuei aurre egin behar dietela eta kasuan kasuko aurrekontu partidetan horretarako aski krediturik ez dagoela adierazteko.

Osasun Departamentuak azaltzen duenez, gehigarria onetsi ezean ezin izanen da aplikatu martxoaren 19ko 11/2023 Foru Legea, aldatzen duena urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duena; Eskubide Sozialetak Departamentuak, berriz, gehigarriaren beharra justifikatzen du esanez lehenbailehen onetsi behar dela laguntza ekonomiko bat Otik 3 urtera bitarteko adingabeak beren kargura dituzten familientzat.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluko lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria finantzatzen ahalko dela gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren kargura, gerakina positiboa denean.

Bestetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua arabera, kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak ematen ahal ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak azpimarratzen dute ezinbestekoa eta atzeraezina dela martxoaren 19ko 11/2023 Foru Legeak indarra hartzeak ekarri dituen finantza betebeharrak betetzea ahalbidetuko duten baliabide gehigarriak jartzea, finantzaketa hori gabe ezinezkoa litzatekeelako foru lege hori aplikatzea. Aipatutako martxoaren 19ko 11/2023 Foru Legeak Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatu zuen eta 2023ko apirilaren 18an eman zen argitara.

Bestalde, Pertsonen Autonomiarako eta Garpenerako Nafarroako Agentziak arau hau presaz tramitatu behar dela justifikatzen du azalduz familien egoera ekonomikoari kalte nabaria ekarri dionela pandemiak, Ukrainako gerraren ondoriozko krisi ekonomikoak eta horrek eragindako KPIren

igoerak, eta horrek erosahalmenaren galera ekarri duela, are handiagoa beren kargura seme-alaba adingabeak dituztenen kasuan. Hori dela eta, komeni da pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa duen populazio sektoreengan, haurrengan adibidez, eragin positiboa izan nahi duten zenbait neurri ez atzeratzea. Gainera, 2023ko urtarrilaren 1ean indarra hartu zuen, estatu osorako, Familien Legearen aurreproiektuan ezarritako hazkuntzagatiko prestazioak, eta, horrenbestez, laguntza hori Foru Komunitatean ekitaldi honetan arautzen

ez bada Nafarroako familientzako desabantaila bat egonen da.

1. artikulua. Kreditu-gehiagarria ematea.

2023rako ekitaldian 23.995.298,20 euroko kreditu-gehiagarri bat ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
540000 52000 1710 311100 Produktibitate osagarria	50.476,00
540001 52610 1710 311100 Produktibitate osagarria	31.840,00
540002 52833 1710 311100 Produktibitate osagarria	19.900,00
540004 52820 1710 311100 Produktibitate osagarria	3.980,00
540005 52831 1710 311100 Produktibitate osagarria	47.760,00
540007 52010 1710 311100 Produktibitate osagarria	3.980,00
540008 52000 1710 311100 Produktibitate osagarria	15.920,00
541004 52700 1704 312400 Guardiak egiteagatiko osagarria	15.786,87
541004 52700 1710 312400 Produktibitate osagarria	405.960,00
543000 52200 1704 312300 Guardiak egiteagatiko osagarria	1.000.999,89
543000 52200 1710 312300 Produktibitate osagarria	4.254.620,00
543004 52214 1704 312700 Guardiak egiteagatiko osagarria	7.276,98
543004 52214 1710 312700 Produktibitate osagarria	31.840,00
545000 52400 1704 312300 Guardiak egiteagatiko osagarria	239.214,67
545000 52400 1710 312300 Produktibitate osagarria	807.940,00
545001 52420 1200 312200 Langile finkoen ordainsariak	125.325,73
545001 52420 1220 312200 Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	95.400,00
545001 52420 1704 312200 Guardiak egiteagatiko osagarria	43.787,82
545001 52420 1710 312200 Produktibitate osagarria	413.920,00
546000 52500 1704 312300 Guardiak egiteagatiko osagarria	139.509,93
546000 52500 1710 312300 Produktibitate osagarria	413.920,00
546001 52520 1200 312200 Langile finkoen ordainsariak	84.856,83
546001 52520 1704 312200 Guardiak egiteagatiko osagarria	69.814,57
546001 52520 2301 312202 Kalte-ordaina, betetzen zailak diren lanpostuetarako joan-etorrien gastuengatik	46.635,00
546001 52520 1710 312200 Produktibitate osagarria	405.960,00
547001 52300 1200 312200 Langile finkoen ordainsariak	712.467,18
547001 52300 1220 312200 Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	1.619.510,19
547001 52300 1704 312200 Guardiak egiteagatiko osagarria	189.960,17
547001 52300 1710 312200 Produktibitate osagarria	2.009.620,97
547001 52300 2301 312202 Kalte-ordaina, betetzen zailak diren lanpostuetarako joan-etorrien gastuengatik	186.130,00
547005 52300 1704 312200 Guardiak egiteagatiko osagarria	3.207,40
547005 52300 1710 312200 Produktibitate osagarria	302.480,00
520000 51200 1710 313900 Produktibitate osagarria	181.480,00
547001-52300-1704-313900 Guardiak egiteagatiko osagarria	13.818,00
920006 93300 4809 231510 Laguntza ekonomikoak beren kargura Otik 3 urtera bitarteko adingabeak dituzten familientzat	10.000.000,00
GUZTIRA:	23.995.298,20

2. artikulua. Kreditu-gehiarriaren finantzaketa.

23.995.298,20 euroko zenbatekoa egiten duen kreditu-gehiarria “Gastu orokorren diruzaintza gerakina” izeneko 113002-12000-8700-000002 partidaren kargura finantzatuko da”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.
